

Idea-laboretegiak, berrikuntza eta ekintzailetasuna Komunikaldietan

2013/03/21

Tania Arriaga doktoregaiak idea-laboretegiaren egoera azaldu zuen, eta hainbat kasu azaldu, munduan zehar barreiatuak.

George Por ikertzaileak idea-laboretegiaren hainbat adibide aipatu zituen, Idealab eta Hack Forward, eta beste proiektu batzuk, komunikazioarekin lotuak, hala nola, Behavio, Peepol.tv, Recovers.org, Signalnoi.se, The Thor Project eta Watchup. Bukatzeko, gomendio bat egin zien entzuleei: "Krisi egoera honetan, salbazioa dago zure pasioan berritzeko".

Goio Arana MUko irakasleak San Frantziskotik hitz egin zuen, bideokonferentzia erabiliz, eta iragarri zuen datorren ikasturtean Ikus-entzunezko Komunikazioa karrerak **Goikolab** sortuko duela, idea-laboretegi bat, ikasleekin batera kudeatzeko, beraien sormena eta ekintzailetasuna suspertze aldera. Oraingoan, MU Goienarekin batera ari da proiektua prestatzen.

Mahai inguruan Euskal Herriko hiru ekimen aurkeztu ziren, berrikuntzarekin zerikusiak dutenak: Basque Ecodesing Center, Dinamik Ideas eta H-Enea.

Arratsaldeko saioa Mikel Orobengoak zuzendu zuen, berau ISEAko arduraduna. Bertan IKOko 3. eta 4. mailako ikasleek Dreamworks saio bat egin zuten. 10 taldetan banatuta, hainbat proiektu aurkeztu zituzten, komunikazioarekin lotuak, enpresaren hazia izan zitezkeenak. Gehienak telefonorako aplikazioak izan ziren, baina baita web bat, eta zerbitzu enpresa bat.

Eguneko argazkiak Flickr-en ikus daitezke: Komunikaldiak 2013.

Oihartzuna hedabideetan

Zenbait hedabidek eman dute Komunikaldien berri:

- Berria.
- Goiena.
- Luistxo Fernandez (CS).
- TU-Lankide.
- Mondraberrri.

